

## 16.4 Hernaniko Gaztelekuan izen-ematea

Espediente kodea: GAZT

### Zer da? Zertarako da?

Hernaniko Gaztelekua 12 eta 17 urte bitarteko hernaniar gazteei zuzendutako zerbitzu hezitzailea da. Doako zerbitzu honek aukera paregabea eskaintzen du lagunekin egoteko eta aisialdiaz gozatzeko, euskaraz, modu aktibo eta parte hartzailean.

### Nori zuzendua dago?

12 eta 17 urte bitarteko hernaniarrei.

### Zerbitzuan izen-ematea:

Urte osoan eman daiteke izena. Zerbitzua erabili ahal izateko eta, batik bat, irteeretara joateko, ezinbestekoa da izen-emate orria betetzea eta guraso edo tutoreak sinatzea.

### Erabilera baldintzak

Erabiltzailea izateko baldintzak:

- 12-17 urte artean izatea.
- Izen-emate orria beteta eta sinatuta izatea.

### Zerbitzuaren egutegi eta ordutegiak:

Zerbitzuak ikasturteko egutegia dauka. Eta opor garaian ordutegi eta eskaintza berezia du.

- Asteartetik-ostegunera: 17:00-20:00.
- Ostiraletik-igandera: 16:30-20:30.

Egutegia udaleko web orrian ikus daiteke.

### Aurkeztu beharreko agiriak:

- [Eskaera-orria](#) beteta eta sinatuta.

### Nola eskatzen da?

- **Aurrez aurre:** Hernaniko Gaztelekuan. Aristizabal kalea 5 behea.
- **Telefonoa:** 943 33 32 12, astearte eta asteazkenetan 8:30-12:30.

### Zenbat kostatzen da?

Doakoa da.

### Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura:

- Izen-emate orriak Gazteria Arloa bideratu.
- Erregistroa kudeatu.

### Tramitzeko ardura duen udal saila:

Hernaniko Gaztelekua. Haur eta Gazteria Arloa

Informazio gehiago: e-posta: [gaztelekua@hernani.eus](mailto:gaztelekua@hernani.eus); 943 33 32 12  
[gazteria@hernani.eus](mailto:gazteria@hernani.eus); 943 33 70 41